

**SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. REN**  
**KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA**

Bilbon, 2020ko urriaren 2an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2020ko irailaren 29ko datarekin, SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. ren (SHESA) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

**BATZORDEKIDEAK**

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea.

Luis Muñoz Jiménez jauna, SHESAko Zuzendari Teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

**IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA**

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
  - SHE/20/001. Lur azpiko operazioetan laguntza teknikoa eta aholkularitza emateko kontratua
2. *Kontratu txikien zerrenda.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- SHE/20/001. Lur azpiko operazioetan laguntza teknikoa eta aholkularitza emateko kontratua.

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPK Lan aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPK Len 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokitzat jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.

2. **Kontratu txikien zerrenda.**

Batzordekideei SHESAk esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

Berrikusitako kontratu txiki batzuen xedea eta egoztea aztertu ondoren, egokitzat jotzen da kontratugileei berriro gogoraraztea kontratu txikiaren xedea behar bezala deskribatu behar dela, eta kontratuaren egozpena (proiektuaren, arloaren, sozietatearen eta abarren arabera) kontu handiz egin behar dela.

Era berean, kontratu txikien zerrendan kontratu txikien bidez egindako esleipenen bolumen ekonomikoari buruzko informazio gehiago sartzeari adostu da, hornitzaileko ekitaldian metatuta.


**3. Beste gai batzuk.**

Ez da beste gairik izan.

**4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A.ko (SHESA) Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Enrique Monasterio Beñaran jn.  
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.  
Kontratazio Batzordeko idazkaria